

OSOGUNEKO ERAKASKERA

1994 - 1995

DELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA

- 1 - Idazlari hunek zer xede du ?
- 2 - Xede ona du ?
- 3 - Emague zuen ustoa behia zer artzen den lidez

II

«ESKUARA»

Aspaldian gogoan dut hau, eta, segur niz, nik bezala bertze batzuek ere. *Eskualduna* euskaldun garbien astekaria baita, hemen mintzo diren gehienak euskarari atxikiak baitira bihotzez bezenbat burüz, zendako ez lezake xokoño bat beira, noiztenka berederen, euskararen erakaspenarentzat?

Oh! xoko bat arras tipia: hamabortz, hogoi, lerrorentzat doidoi toki luken xoko bat (3).

Edozonek bere erraitekoak han ezar ahal litzazke; lapurtar, baxenabartar, amikuztar, xuberotar, nor nahik, zentzuz labil-en ber.

^{Reya} Erakuts lezaguke euskarari doakon zerbaít, lañoki, eleketa ari balitz bezala. Hau haatik beti gogoan atxikiz: ez litakela hor jakintsunentzat mintzo, bainan ba laborarientzat, bai eta euskara doidoi murdukatzen dakiten xapeldun gaizo batzuentzat. Erran nahi dugu: orok aditzeko menea behar lukela jarri, xe-he xehea agertuz bere gogoetañoak, haur batzuen argitzera bala-^{ba} Woa bezala.

Nahuzue lot giten lehenik sailari? Beazue, helduden astean ez bada, bertzean zer dion *Eskuara* delako solas zati berri hune (3).

BEHIA ZER ARTZEN DEN

Behiak belarra ahorat hartu ta, hemen apur bat *hausten du*, ustitzen, eta larri larria zintzurrerat bildurik iresten.

Gero, epe labur baten buruan, ardura etzanik dagolarik, sa-beletik ahorat igaiten du belar hura. Ahoan berriz *hausten du*, xehatzen, ahogozoarekin oratzen, aldebat iresteko.

Beraz behia *hauts-berrian* artzen da, edo, legunkixago erraiteko, *hausberrian*.

Hanitz euskalduner, bizkitartean, adituko deiezu bertze hitz bat; erranen dautzute behia artzen dela *hasmaarruan*.

Hitz hunek, ikusten duzuen bezala, ez du bururik, ez buztanik.

Ez du erran behar lukena erraiten. Iduri du hori derasatenek azpiko matrailla arrunt alferra dutela. Harat-hunat baderabilate, erdi dilindan, behiak bezala, hunek baino gehiago jakin gabe zendako.

III ADITZ IKASKUNTZA

31. Behar lukela 32. Zentzuz labilken
33. Adituko deiezu 34. Derasatenek.

31. UKAN - Conditionnel Présent

O. Singulier

Nik nuke = je l'aurais

Hik nuke

Zuk zinuke

Harek luke

Guk ginuke

Zuek zinukete

Heiek lukete

O. Pluriel

Nituzke

Hituzke

Zinituzke

lituzke

Ginituzke

Zinituzkete

Lituzkete

32. IBili - Conditionnel

Ni mindabilke (je marcherais)

Hi mindabilke

Zu zinabilzke

Hura labilke

Gu ginabilzke

Zuek zinabilzkete

Heiek labilzke etc

Subjonctif Présent

Nabilan (je marche)

Habilan

zabilzgan

dabilan

gabiltzan

zabiltzaten

dabiltzan etc

33. UKAN. Conj. à dble Gpt. Indic. Présent

Obj. sing. Gpt. indir. Pluriel - HEIERI: a euz

Nik diet = deielt = je le leur ai

Zuk diezu = deiezu = vous le leur avez

Harek die = diei = il le leur a

Guk diegu = dieegu = nous le leur avons

Zuek diezue = dieezue = vous le leur avez

Heiek diete = deiete = ils le leur ont